



# **EUSKADIREN NAZIOARTEKOTZEAREN ERRADIOGRAFIA**

2016ko uztailaren 26a

## AURKIBIDEA

<b>0. SARRERA</b> .....	3
<b>1. IKERKETA ETA GOGOETA PROZESUAREN ESPARRU KONTZEPTUALA ETA IRISPIDEA</b> .....	5
1.1. Adierazleak eta horien tipologiak .....	5
1.2. Hautatutako adierazleen ezaugarriak.....	7
<b>2. PROIEKTUAREN HELBURUAK ETA METODOLOGIA</b> .....	8
2.1. Proiektuaren helburu orokorra .....	8
2.2. Txosten hau lantzeko metodologia eta prozesua .....	8
<b>3. ADIERAZLEEN SISTEMA</b> .....	10
3.1. Testuinguru globaleko adierazleak: zer ordezkatzten du Euskadik munduan. ....	10
3.2. Presentzia globaleko adierazleak: zer ordezkatzten eta ekartzen du Euskadik gaur egun munduan.....	12

## 0. SARRERA

X. legealdi honetan garbi dago Euskadiren etorkizuna agertoki globalean jokatzeko delako. Horregatik, Euskadiren nazioartekotzea, herrialde-erronka den aldetik, "Nazioartekotzeko Esparru Estrategia 2020: Basque Country Estrategia" dokumentuan jasoa, funtsezkoa da bere ongizaterako eta etorkizunean izango duen lehiakortasunerako.

"Nazioartekotzeko Esparru Estrategia 2020: Basque Country Estrategiak" baditu bere gobernamentu-eredua eta jarraipen- eta ebaluazio-sistema, dagozkien agintekoadroarekin eta kudeaketa-adierazleekin. Horri esker, Jaurlaritzak garatu dituen jarduketak eta ekintzak ebalua daitezke, finkatutako helburu estrategikoak X. legealdiaren amaieran zenbateraino bete diren jakiteko. Alabaina, barne-kudeaketa gauzatzearen adierazleak direnez, ez dituzte erregistratzen eta islatzen Euskadik munduan eragile global gisa duen posizionamenduan eragina duten inguruneko aldagai objektiboen aldaketak.

"Nazioartekotzeko Esparru Estrategia 2020: Basque Country Estrategia" dokumentuak adierazten duen moduan, gauzate-adierazleak gorabehera, "Eusko Jaurlaritzaren kanpo-harremanen eragina neurtuko duen sistema bat diseinatzeko gogoeta-prozesu bat hasiko da. Izan ere, gaur egun Euskadin ez dago horrelako sistemarik, eta nazioartean ere ez dago erreferentzia garbirik".

Esparru Estrategiaren agindu garbi hori da dokumentu honen jatorria. Hain zuzen ere, etorkizunean Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanen eragina neurtzeko sistema erdiesteko gogoeta-prozesuaren lehen fase horretan egin den prozesua eta lortu diren emaitzak deskribatzen ditu dokumentuak.

Eragina neurtzeko sistemak —eragin-adierazleek osatzen dute, jakina— ekintza jakin batzuk burutu direnean analizatutako aldagaien egoeran edo magnitudean espero den edo gertatu den aldaketa irudikatu edo adierazten du. Aldakuntza horiek epe ertaineko edo luzeko aldietan neurtu ohi dira, denbora-tarte bat behar izaten baita Euskadiren eskala globaleko posizionamenduan sortutako aldakuntzak edo hobekuntzak neurtu ahal izateko. Eragina neurtzeko sistema batera iritsi ahal izateko, alabaina, lurraldearen presentzia globala edo nazioartekotze-maila modu objektiboan eta erabilgarritasun-irizpide garbiarekin deskribatzen dituzten dimentsioak eta adierazleak definitu behar dira lehenengo.

Horrenbestez, lehen fase horretan, etorkizunean eragina neurtzeko sistema erdiesteko helburuarekin, adierazleen esparru kontzeptuala definitu eta hautatutako adierazleen egungo balioak bilatu eta erregistratu ondoren, "EUSKADIREN NAZIOARTEKOTZEAREN 2015EKO ERRADIOGRAFIA" landu da, adierazle objektibo eta subjektiboen hasierako oinarria erabilita, dagozkien egungo balioekin. Izan ere, hori izango da etorkizuneko eragin-adierazleen sistemarako abiapuntua.

“Erradiografia” edo “argazki” horrek deskribatzen du EUSKADIK MUNDUAN ERAGILE GLOBAL GISA DUEN PRESENTZIA ETA HERRIALDE GISA DUEN NAZIOARTEKOTZE MAILA.

Hautatutako adierazleak aldian behin eguneratuta, ondorengo faseetan “argazkian” jasotako dimentsio bakoitzeko eraginen neurketa eta ebaluazioa lortu ahal izango da.

2015ean aurkeztutako “erradiografia”, hots, Euskadiren nazioartekotzearen egungo egoera, egungo agertoki globalaren baldintzapean dago. Agertoki horretan, kontuan hartzea gomendatzen den ingurunearen bi faktore nabarmentzen dira:

- Egungo globalizazio-testuinguruak —komunikazioekin, finantza-fluxuekin, nazioarteko merkataritzarekin, migrazio-mugimenduekin eta abar erlacionatutako prozesuen elkarrekiko mendekotasun gero eta handiagoa du bereizgarri— funtsean aldatzen du kanpo-politika tradizionala. Measuring National Power in the Postindustrial Age (Tellis et al., 2000) liburuan, egileek adierazten dutenez, “gizarte postindustrialaren etorrerak transformatu egin ditu botere nazionalaren oinarri tradizionalak”.
- Era berean, integrazio ekonomiko eta politikoko proiektuak sortzen edo indartzen hasten dira, eta gobernu guztien nazioarteko agendan ezartzen ari dira, haien lurralde-esparrua dena dela ere, klima-aldaketa, elikadura- eta energia-segurtasuna, krimen antolatua edo nazioarteko terrorismoa bezalako izaera transnazionalako mehatxu eta gai politikoak, estatu-nazioaren era nazioarteko testuinguruaren arteko muga lausotzen dutenak.

Txostena hiru zatitan egituratzen da:

1. Ikerketa- eta gogoeta-prozesuaren esparru kontzeptuala eta analitikoa, eta irispidea: egindako ikerketa- eta gogoeta-lana zehaztu eta baldintzatu duten alderdiak plano teorikoan deskribatu, azaldu eta analizatzen dira.
2. Aplikatutako proiektuaren helburuak eta metodologia: adierazleak identifikatzeko, analizatzeko eta hautatzeko prozesua.
3. Adierazleak: Euskadiren nazioartekotzearen 2015. urte amaierako erradiografia finkoa, estatikoa, lortzea ahalbidetzen duten hautatutako adierazleen mapa.

Garatutako gogoeta-prozesua, Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia buru izan duena, Eusko Jaurlaritzaren sail guztien lankidetzan izan duen parte hartzeko prozesua izan da. Aipamen berezia merezi du Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat), proiektuari ekarpen aberasgarriak egin baitizkio estatistikaren alorrean.

## 1. IKERKETA ETA GOGOETA PROZESUAREN ESPARRU KONTZEPTUALA ETA IRISPIDEA.

Globalizazioa itzulbiderik ez duen noranzko bikoitzeko bidea da. Euskadirentzat ezinbestekoa da ahalmenak garatzen jarraitzea, nazioartekotze- eta irekitze-maila areagotzeko, eta horretarako laguntza eman behar die garatzeko kanpora irten nahi duten instituzio, erakunde eta pertsoneri, eta ahalmena izan behar du talentua erakartzeko eta atxikitze eta fluxu globalentzako espazio lehiakor erakargarria izateko.

Bide egokia egiten ari garen ebaluatzeko modu bakarra neurketa da:

“Definitzen ez dena ezin da neurtu. Neurtzen ez dena ezin da hobetu. Hobetzen ez dena degradatu egiten da beti”. Lord Kelvin.

### 1.1. Adierazleak eta horien tipologiak

Adierazle kontzeptuaren definizio ugari daude.

Edozein interpretaziotan, gertaera kolektiboak modu kuantitatiboan neurtzen eta objektibatzen ahalegintzen diren aldagaiak dira adierazleak. Horrela, ekintza politikoei babesa emateko eta lorpenak eta helmugak ebaluatzeko aukera ematen dute.

Ez dago jarduketa-maila bat neurtzeko “adierazle zuzenik”. Hainbat autorek adierazleen ezaugarriei buruz egiten dituzten aipamenetan kopuru handiagoa edo txikiagoa ematen dute, baina oro har, ezaugarri hauek ematen dizkiote “adierazle on” bati: neurgarria; zehatza; sendoa; sentikorra eta ekonomikoa.

Oro har, adierazleen tipologiak hiru hurbilketaren arabera bereizten dira:

- a) Adierazleen eraikuntza-sistemaren arabera
- b) Tratututako informazioaren izaeraren arabera
- c) Adierazleek ebaluazioaren xede den lan-prozesuan betetzen duten posizio erlatiboaren arabera

#### a) Adierazleen eraikuntza-sistemaren arabera

- **Adierazle bakunak.**

Fenomeno jakin baten alderdi behagarriren bat analizatzeko erabiltzen diren oinarrizko datuen sintesiak edo serieak dira adierazle bakunak, aldagai bakar bati dagozkionak.

Esate baterako, “Euskadiko ondasun-merkataritzaren nazioartekotzea” aldagai ekonomikoa neurtzen duen adierazle bakun bat Euskadiko nazioarteko merkataritzaren irekitze-maila da, honela kalkulatu:

$$(Esportazioak + Inportazioak) / BPG.$$

- **Adierazle konposatuak (indize ere deituak).**

Adierazle konposatua edo indizea gai konplexu eta dimentsioaniztunetarako balio duten zenbait aldagaien konbinazio haztatuaren emaitza da.

Adierazle konposatuen adibiderik hedatuena Nazio Batuen Garapen Programaren (NBGP) giza garapenaren indizea (GGI) da. GGIaren kasuan, giza garapena aldagai demografikoen, osasunekoan, hezkuntzakoan eta diru-sarrerei dagozkien elkarrekintza dela ulertzen da, eta jaiotzako bizi-itxaropena, alfabetatze-tasa, lehen, bigarren eta hirugarren hezkuntzako matrikulazio-tasa eta per capita sarrera errealak haztatuta neurtzen da.

- b) Trataturako informazioaren izaeraren arabera.** Adierazleak eraikitzekeo informazioa nola lortzen den kontuan hartzen badugu, honako hauek bereiz daitezke:

- **Adierazle objektiboak.** Informatzaileari lotu gabeko kanpo-ebidentzietan oinarrituta lantzen dira, informazioa biltzeko, prozesatzeko eta hedatzeko metodoak objektiboak direla pentsatuta.

Adierazle objektiboen adibide bat Euskadiko ondasunak esportatzeko joera da, datu objektiboekin kalkulatu da-eta: Euskadiko ondasunen esportazioen balioa / BPG.

- **Adierazle subjektiboak edo pertzepzio-adierazleak.**

Pertsonen iritzi subjektiboa biltzen duten adierazleak dira. Interes-taldeek gai jakin bati buruz duten iritziari buruzkoak dira.

Inkestak, elkarrizketak edo foku-taldeak oinarri hartuta lantzen dira. Horien laginak, estatistikoki fidagarria izan dadin, interes-taldeak osatzen dituzten segmentu guztien adierazgarria izan behar du.

Adibide gisa, adierazle subjektibotzat edo pertzepzio-adierazletzat har liteke euskal gizartearen pentsamolde globala, maila globalean izandako gertaerek beren bizitzan eragina dutela adierazten duten euskal herritarren ehunekoaren bitartez neurtua.

- c) Adierazleek monitorizazioaren edo ebaluazioaren xede den lan-prozesuan betetzen duten posizio erlatiboaren arabera.**

- **Kudeaketa-adierazleak**

Politika edo programa baten produktu espezifikoak lortzeko gauzatzen diren prozesuak, inputak eta jarduerak monitorizatzeko erabiltzen dira. Baliabideak optimizatzeari dagokionez (eraginkortasuna) prozesua nola egiten ari den neurtzen dute.

Mota honetako adierazleak aukera ematen dute zer gertatzen ari den detektatzeko eta egoera hobetzeko erabaki egokiak hartzeko.

Kudeaketa-adierazleen adibide bat izan liteke "Nazioartekotzeko Esparru Estrategia 2020: Basque Country Estrategian" 5. ardatza, "Inbertsio estrategikoak biltzea eta sendotzea", "Egindako AZI aurkezpen kopurua" adierazlearen bitartez ebaluatzeko definitutakoa.

- **Emaitza-adierazleak**

Ekintzak, politikak edo programak sortutako ondasun eta zerbitzuekin erlazionatzen ditu inputak. Kudeaketan erdietsitako helmugekin eta horiek lortzeko efikaziarekin eta eraginkortasunarekin lotuta daude. Bestela esanda, haien emaitzekin lotuta.

Argigarri gisa, euskal hezkuntza-sistema nazioartekotzera zuzendutako ekintza eta politiken emaitza-adierazletzat har genezake unibertsitate-ikasketetako euskal ikasleen nazioarteko mugikortasuna, esate baterako Erasmus programaren esparruan nazioarteko unibertsitateetara ikastera joaten diren euskal ikasleen kopuruaren bitartez neurtua, "Erasmus" nazioarteko mugikortasun-programaren onuradun diren ikasleen guztizko kopurua erreferentziatzat hartuta.

- **Eragin-adierazleak**

Proiektua, programa edo politika gauzatzeari egotz dakizkikeen inguruneko aldaketei jarraipena emateko diseinatzen dira. Ekintza burutu ondoren ekintzaren xede den egoeran espero den aldaketa adierazten dute.

Esate baterako, Eusko Jaurlaritzaren nazioarteko lankidetzaren behatzea xede duen Euskadiren kanpo-harremanen eragin-adierazle bat izan liteke bi denboratarte jakinen artean "nazioarteko erakunde eta instituzioekin sinatutako lankidetzaren akordioaren kopuruaren aldakuntza".

**Etorkizunean eraginak neurtzeko baliagarriak izan daitezkeen emaitza-adierazleetan zentratu da lan hau.**

## 1.2. Hautatutako adierazleen ezaugarriak

Adierazleak hautatzeko eta diseinatzeko honako hauek izan dira kontuan:

- Kontuan hartu beharreko **nazioarteko dimentsioen heterogeneotasuna**: Instituzionala, Ekonomia eta Industria, Kultura eta Euskara, Turismoa, Garraioa, Zientzia eta Teknologia, Hezkuntza, Ingurumena eta Gizartea.
- **Informazioaren erabilgarritasuna** eta adierazleen sisteman sartzeko **behar diren datuak izatea**.
- **Konparagarritasuna eskala globalean oro har eta Europa mailan, adierazle jakin batzuetan**.

Horregatik, gai-multzoen arabera adierazle-taldeak identifikatu dira Euskadiren Nazioartekotzearen Adierazleen Sistemako gai edo dimentsio bakoitzerako, hurrengo ekitaldietan erreplikatu ahal izango direla bermatzeko.


## 2. PROIEKTUAREN HELBURUAK ETA METODOLOGIA

### 2.1. Proiektuaren helburu orokorra

Euskadiren egungo presentzia globala eta nazioartekoa neurtzen eta analizatzen laguntzea, dokumentuzko datutegi enpirikoa eta abiapuntuako adierazle-sistema antolatuta Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanek nazioartekotzearen emaitzetan duten eragina etorkizunean neurtzeko. Eusko Jaurlaritzaren beraren orientazio estrategikoan eta jarduketan laguntzea, Euskadiren nazioarteko proiektzioan (euskal gizartea, ekonomia, erakundeak eta enpresak) betetzen duen lidergo-lanean. Orobat, lankide diren beste erakunde edo elkarte batzuen jarduketa bideratzea, nazioartekotzea herrialde-estrategia bihurtzeko, eta, hartara, euskal gizartearen ongizate-maila eta euskal ekonomiaren lehiakortasuna oro har areagotzeko.

### 2.2. Txosten hau lantzeko metodologia eta prozesua

Erantsitako grafikoak laburbilduta azaltzen du txosten hau egiteko gauzatu den prozesua.



Adierazleak hautatzeko prozesua eskala globalean erabilitako adierazle nagusien irizpide anitzeko analisisan, egun dauden nazioarteko posizionamenduaren ebaluazioetan eta erabilgarri dauden datuetan oinarritu da.

Horretarako, bi urratsez osatutako metodologia bat garatu da.



Lehen urratsean hiru iragazki aplikatzen dira, honako irizpide hauek hobekien betetzen dituzten adierazleak hautatuta:

- 1. iragazkia: Eduki daitezke Euskadiri buruzko datu eguneratuak? (kalkulatu den edo adierazlea lortzeko daturik dagoen kontuan hartuta)
- 2. iragazkia: Fidagarria da adierazlea osatuko duten datuak lortzeko erabili den informazioa edo aplikatu den metodologia?
- 3. iragazkia: Adierazleak ematen duen informazioa behar bezain adierazgarria da behatutako dimentsioa analizatzeko?

Bigarren urratsean, aurreko hiru iragazkiak gainditu dituzten adierazleei lehentasuna ematen zaie honako irizpide hauen arabera:

- Konpara daiteke adierazlea eskala globalean?
- Zenbateraino da garrantzizkoa adierazlea analizatutako dimentsiorako?

Neurtzeko esparru kontzeptual bikain zorrotzagoak daude, besteak beste gure aberastasun kulturala, hezkuntzarena, osasunarena edo hiritarren segurtasunari dagokiona aurkeztea ahalbidetzen dutenak. Dena den, nazioarteko eskalan nekez konpara daitezke, munduan datu estatistikoak erabilgarri ez daudelako edo dagokien informazioa biltzeak kostu handia duelako. Garatutako prozesuan oso ikuspegi praktikoa aplikatu zen, konparagarritasun globalari lehentasuna ematen ziona baina gure berezitasuna islatzeko aukera ematen duten adierazle jakin batzuei ere nolabait ere amore emanda.

Adierazleei lehentasuna emateko prozesuaren emaitza gisa, EUSKADIREN NAZIOARTEKOTZEAREN adierazleen sistema lortu da, 31 adierazlek, testuinguru globaleko 4 adierazlek eta presentzia globaleko 27 adierazlek osatzen dutena. Ondoren azalduko dira.

### 3. ADIERAZLEEN SISTEMA

Lehen multzo batean (3.1. atala) **testuinguru globaleko 4 adierazle** aurkezten dira. Biztanleriaren, azaleraren eta BPGaren balioak gurutzatzen dituzte eta EB28ko eta munduko datuekiko erlatibizatzen ditu. Adierazle horien xedea ez dago proiektu honen helburuari zuzenean loturik (Euskadiren presentzia globalaren egungo egoera ezagutzeko); aitzitik, Euskadik eskala globalean eta Europa mailan duen presentzia eta garrantzi lurralde-mailakoari, demografikoari eta ekonomikoari buruzko ikuspegia eskaintzen dute.

Hurrengo atalean (3.2), azkenean hautatu diren **Euskadiren presentzia globaleko adierazleen** mapa aurkezten da (**27 adierazle**), behaketaren xede den dimentsioaren arabera sailkatuta.

#### 3.1. Testuinguru globaleko adierazleak: zer ordezkatzten du Euskadik munduan.

##### C.1. adierazlea: Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren pisu erlatiboa

	Biztanleria, 2015. urtea (biztanle kopurua)	Euskadik ordezkatzten duen %
Euskal Autonomia Erkidegoa	2.173.210	% 100,00
Europa (EB28)	508.191.116	% 0,43
Mundua	7.346.633.037	% 0,03

2015. urtean, munduko biztanleriaren % 0,03 Euskadin bizi zen, edo, bestela esanda, munduan **bizi diren 3.380 pertsonatik bat Euskadin bizi da**.

Euskadiko biztanlerian oinarrituta, modu irudikarian mundua biztanle kopuru bereko 3.380 herrialdetan zati liteke.

EB28ko herrialdeak barnean hartuko dituen biztanleriaren sailkapena batean, Euskal Autonomia Erkidegoa **23. tokian** dago, biztanleen **% 0,43**rekin, Eslovenia, Letonia, Estonia, Zipre, Luxenburgo eta Malta bezalako herrialdeen gainetik. **Europako 234 biztanletik bat Euskadin bizi da**.

### C.2. adierazlea: Euskal Autonomia Erkidegoko azaleraren pisu erlatiboa

	Azalera, 2015. urtea (km <sup>2</sup> )	Euskadik ordezkatzeko duen %
Euskal Autonomia Erkidegoa	7.234	% 100,00
Europa (EB28)	10.530.751	% 0,07
Mundua	134.325.435	% 0,01

Euskadiren azalera **mundu osoaren % 0,01** da.

Euskadiko azalera oinarrituta, modu irudikarian mundua dimentsio bereko 18.569 herrialdetan zati liteke; Nazio Batuetan erregistratutako herrialde subiranoen eta mendeko lurraldeen guztizko kopurua, aldiz, 237 da gaur egun.

Euskadiko azalera **EB28ko azalera osoaren % 0,07** da.

### C.3. adierazlea: Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren dentsitatea

	Biztanleriaren dentsitatea, 2015. urtea (biztanle/km <sup>2</sup> )	Euskadiren aldaguntza Europarekiko eta munduarekiko
Euskal Autonomia Erkidegoa	300	-
Europa (EB28)	48	% 522,52
Mundua	55	% 449,28

2015. urtean, Euskadiko biztanleriaren dentsitatea **300 bizt./km<sup>2</sup>** da, mundu osokoa (55 bizt./km<sup>2</sup>) baino % 449 handiagoa eta EB28koa (48 bizt./km<sup>2</sup>) baino % 522 handiagoa.

#### C.4. adierazlea: Euskal Autonomia Erkidegoko BPGaren pisu erlatiboa

	Uneko prezioetan adierazitako BPG, 2015. urtea (milioi eurotan)	Euskadik ordezkatzeko duen %
Euskal Autonomia Erkidegoa	68.723	% 100,00
Europa (EB28)	14.635.153	% 0,47
Mundua <sup>(1)</sup>	71.047.867	% 0,10

**Euskal Autonomia Erkidegoak**, uneko prezioetan adierazitako 68.723 milioi euroko BPGarekin, 2015ean, **Europako (EB28) BPGaren % 0,47 eta munduko BPGaren % 0,1 jartzen du.**

**Euskadiko BPGan oinarrituta, mundua tamaina bereko 1.033 ekonomiatan zati liteke.**

### 3.2. Presentzia globaleko adierazleak: zer ordezkatzeko eta ekartzeko du Euskadik gaur egun munduan.

Ondoren, azkenean hautatu diren **Euskadiren presentzia globaleko** adierazleen mapa aurkezten da (**27 adierazle**), behaketaren xede den **dimentsioaren** arabera sailkatuta.

#### 3.2.1. I. dimentsioa: Instituzionala

#### I.5. adierazlea: Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkariak kontsularrak

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa	Behatutako urtea/aldia
Euskal Autonomia Erkidegoko kontsulatu kopurua	Kontsulatu kopurua	41	2016

Euskadin gaur egun **41 herrialdek dute presentzia kontsularra**, sei kontsulatu nagusiren (Bolivia, Frantzia, Maroko, Peru, Errumania eta Venezuela) eta ohorezko hogeita hamabost kontsulaturen bitartez.

41 kontsulatu horiek ordezkaten dituzten herrialdeek **munduko biztanleriaren % 17,7** hartzen dute eta haien ekonomiek **munduko produktu gordinaren % 30,8** jartzen dute.

Euskadin **EB28ko 20 herrialdek** dute presentzia kontsularra; eremu geografiko horretako biztanleriaren % 78,5 ordezkaten dute eta BPGaren % 86,4.

#### I.6. adierazlea: Eusko Jaurlaritzaren presentzia instituzionala munduan

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa	Behatutako urtea/aldia
Eusko Jaurlaritzaren kanpoko ordezkariak kopurua + SPRIren bulego kopurua + Kanpoko aholkulariaren lankidetzak-akordio egonkorren kopurua	Kopurua	75	Stocka, 2016. urtea

Eusko Jaurlaritzaren kanpoko sare instituzionala, **75 loturak** osatua: **5 ordezkariak** munduko 6 kokapen geografikorekin Belgikan (Brusela), Argentinan, Txilen, Kolonbian, Ameriketako Estatu Batuetan eta Mexikon, **SPRIren kanpoko sarearen bitartez interes ekonomikoak eta merkataritzakoak ordezkaten dituzten 10 bulego** (Alemania, Brasil, Txina, Eslovakiar Errepublika, India, Polonia, Txekiar Errepublika, Errusia, Singapur eta Turkia), eta izaera ekonomikoko **kanpoko 60 kolaboratzailek/aholkularik** osatutako sarea.

Sare instituzional misto horren bitartez, **munduko produktu gordinaren % 91,71** biltzen duten **74 herrialdetan** du presentzia Eusko Jaurlaritzak.

74 herrialde horietatik 33 **“lehentasunezko herrialdeak”** dira, “Nazioartekotzeko Esparru Estrategia 2020: **BASQUE COUNTRY ESTRATEGIAN**” halakotzat definituak. **Eusko Jaurlaritzak presentzia du** —ordezkariak edo SPRIren bulegoen bitartez zein kanpoko aholkulariaren lankidetzak-akordio egonkorren bidez— **Euskadirentzat lehentasunezko zatitako definitutako herrialde guztietan**, hau da, **hamalau herrialdetan** (Alemania, Danimarka, Frantzia, Erresuma Batua, Ameriketako Estatu Batuak, Mexiko, Brasil, Kolonia, Peru, Korea, India, Singapur, Txina eta Hegoafrika), eta beste 19 herrialdetan<sup>1</sup>: Europar Batasunekoak (17 herrialde), Europako Iparraldeko herrialdeak (3) eta Latinoamerikakoak (1), lehentasunezko zatitako eremu geografikoak horiek ere.

<sup>1</sup> Bat datozen herrialdeak dituzten eremu geografikoen arteko bikoiztasunak ezabatuta. Europako Iparraldeko bi herrialde Europar Batasunekoak dira.

**BASQUE COUNTRY ESTRATEGIAN** definitutako Eusko Jaurlaritzaren jarduketa-esparru geografikoen sailkapenarekin jarraituta, Eusko Jaurlaritzaren kanpoko sare instituzionalak **presentzia du Euskadirentzako "herrialde lehenetsi" guztietan, hamabi guztira** (Holanda, Irlanda, Errusia, Turkia, Kanada, Argentina, Txile, Japonia, Malaysia, Indonesia, Vietnam eta Israel), **eta Golkoko beste bost herrialdetan** (Arabiar Emirerri Batuak, Iran, Kuwait, Oman eta Qatar). Herrialde multzo hori ere lehenetsi gisa sailkatuta dago.

#### I.7.a. adierazlea: Eusko Jaurlaritzak sinatutako nazioarteko akordioak

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa	Behatutako urtea/aldia
Eusko Jaurlaritzak sinatutako nazioarteko akordioen kopurua (stocka, 2004. urteaz geroztik)	Akordio kopurua	453	Stocka, 2016. urtea

#### I.7.b. adierazlea: Eusko Jaurlaritzaren partaidetza duten nazioarteko sareak

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa	Behatutako urtea/aldia
Eusko Jaurlaritzaren partaidetza duten nazioarteko sareen kopurua	Sare kopurua	75	Stocka, 2016. urtea

Azken lau legegaldietan, Eusko Jaurlaritzak eta bere sailek **nazioarteko 453 akordio** sinatu dituzte guztira; horietatik **28 akordio aldeaniztunak** dira eta **425 aldebiko akordioak**.

Sinatutako aldebiko 425 akordio horiek **munduko BPGaren % 84,45 ordezkutzen duten 56 herrialde** hartzen dituzte guztira, era askotako gaien inguruan (Kanpo Harremanak; Nekazaritza eta Arrantza; Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza; Kultura; Hizkuntza Politika; Hezkuntza; Turismoa; Enplegua eta Gizarte Politikak; Ingurumena, Iraunkortasuna eta Lurralde Politika; Osasuna).

Eusko Jaurlaritzak gaur arte sinatu dituen aldebiko 425 akordioetatik, **296 (% 69,64) BASQUE COUNTRY ESTRATEGIAN "lehentasunezkoztat"** definitutako herrialde eta eremu geografikoekin sinatu dira, zehazki, Euskadirentzat lehentasunezkoztat definitutako herrialde guztiekin —Korea eta Singapur izan ezik, horiekin ez baitago akordiorik gai bakar batean ere— eta, gainera, Europar Batasuneko (11 herrialde, 68 akordio), Europako Iparraldeko (3 herrialde, 13 akordio) eta Latinoamerikako (12 herrialde, 65 akordio) beste 24 herrialderekin.

**Eusko Jaurlaritzak sinatutako aldebiko beste 111 akordio (% 26,12)** aipatutako estrategian **"herri lehenetsizat"** definitutako **10 herrialderekin** sinatu

ditu, definitutako banako herrialde guztiekin, Malaysia, Vietnam eta Israel izan ezik, eta Golkoko herrialdeen multzoko herrialde batekin (Irak), eremu geografiko lehenetsia hori ere.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak, bere 9 sailen bitartez, **nazioarteko 75 saretan** parte hartzen du: 55 sare **Europako irispidekoak** dira eta **20 sare irispide globalekoak**.

**Irispide globaleko sareetan parte hartzen duten sailak** gai hauetan eskumenak dituztenak dira: kanpo-harremanak, lehiakortasuna eta berrikuntza, turismoa, kultura, osasuna, segurtasuna, garraioa, nekazaritza eta landa-garapena, mendia, arrantza eta ingurumena.

### I.8. adierazlea: Munduko Euskal Etxeen sarea

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa	Behatutako urtea/aldia
Munduko Euskal Etxeen kopurua	Euskal Etxeen kopurua	190	2016

Gaur egun, guztira **190 Euskal Etxe** erregistratuta daude **25 herrialdetan**. Argentinak horien % 44 kontzentratzen ditu (84 Euskal Etxe) eta Ameriketako Estatu Batuek % 20 hartzen dituzte (38 Euskal Etxe).

### **3.2.2. II. dimentsioa: Ekonomia eta Industria**

#### E.9. adierazlea: Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunen esportatzeko joera

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa	Behatutako urtea/aldia
Ondasunen esportazioak / Euskadiko BPG	%	% 31,95	2015

**Euskadiko ondasunen kanpo-merkataritzak**, 2015. urtean, % **31,95eko esportatzeko joera** erakusten du; **eskala globalean**, aldiz, munduko ondasunen esportazioak munduko produktu gordinaren % **20,44**ren baliokideak dira.

Euskal ekonomiaren esportatzeko joera handi horrek —munduko batez bestekoa baino 11,5 puntu gehiago ehunekoetan— **euskal enpresa industrialen kanporako orientazio** garbia islatzen du.

E.10. adierazlea: Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunen esportazioek munduko ondasunen esportazioetan duten pisu erlatiboa

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa	Behatutako urtea/aldia
Euskadiko ondasunen esportazioak / Munduko ondasunen esportazioak	%	% 0,15	2015

2015. urtean, **Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunen esportazioak munduko esportazioen % 0,15** izan ziren. Horiek horrela, munduan esportazio-jardueraren bitartez sortutako 670 eurotik bat Euskadin sortua zen.

Gure barne-produktu gordina munduko produktu gordinaren % 0,1 izanik, gure ondasunen esportazioen dimentsio handiagoak gure irekitze-maila handia eta gure industriaren lehiakortasuna erakusten du.

**EB28ri** dagokionez, 2015. urtean **euskal esportazioak estatu kideen guztizko esportazioen % 0,45** izan ziren (batasunaren barneko eta kanpoko esportazioak). Hortaz, EB28rako esportazioetarako gure ekarpena zona horretako BPGan dugun partaidetzatik oso hurbil dago (% 0,47).

E.11. adierazlea: Euskadin egindako atzerriko zuzeneko inbertsioaren (AZI) balioa

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa	Behatutako urtea/aldia
Euskadin aldi jakin batean egindako AZIaren stockaren balioa	Miloi eurotan	3.385,79	2013-2015



2013-2015 aldian, **Euskadik**, munduko produktu gordinaren % 0,10 ordezkaten zuela, 3.385,79 milioi euroko inbertsioa **jaso zuen** atzeritik. Datu horrek **mundu osoan egindako atzerriko zuzeneko inbertsio (AZI) osoaren % 0,08 ordezkaten du. Izan ere, 2013-2015 hirurtekoa izan da azken hamarkadan atzerriko inbertsio gehien bildu duena.**

Aldi bererako (2013-2015) **AZIa barne-produktu gordinari loturik** kontuan hartzen badugu, **atzerriko zuzeneko inbertsioa Euskadin gure BPGaren % 1,68 izan zen, munduko ratioaren** azpitik, AZIa munduko produktu gordinaren **% 3,54** izan baitzen.

#### E.12. adierazlea: Euskal enpresen kanpoko ezarpenak

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa	Behatutako urtea/aldia
Euskal enpresen kanpoko ezarpenen kopurua	Kopurua	1.688	Stocka, 2016. urtea

2015. urtean, **593 euskal enpresak gutxienez ezarpen bat** zuten atzerrian (merkataritzakoa eta/edo produkziokoa).

Munduan gure lurraldetik kanpo dauden euskal enpresen 1.688 ezarpenetatik, 1.204 **merkataritza-ezarpenak (% 71,3)** dira eta **484 produkzio-ezarpenak (% 28,7)**.

Euskal enpresek, 1.688 ezarpenen bitartez, **munduko produktu gordinaren % 95** biltzen duten **94 herrialdetan** dute presentzia.

Ezarpen horien **% 83,8** (1.415) **BASQUE COUNTRY ESTRATEGIAN** definitutako **"lehenetsietan"** herrialde eta eremuetan daude, eta **% 11,2** (189 ezarpen) **herrialde eta eremu "lehenetsietan"**. Vietnam da euskal enpresen ezarpenik ez duen BASQUE COUNTRY ESTRATEGIAKO herrialde lehenetsi bakarra.

### 3.2.3. III. dimentsioa: Kultura eta Euskara

#### CE.13. adierazlea: Munduko euskal ondarea

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa	Behatutako urtea/aldia
-------------------------------------	-------------------	----------------------	------------------------

UNESCOk "Munduko ondare" deklaraturako euskal elementuen kopurua / Mundu mailan deklaraturako elementuak guztira	%	% 0,3	2016
--	---	-------	------

Euskadik, munduko biztanleriaren % 0,03 eta azaleraren % 0,01 biltzen duela, UNESCOk "**Munduko ondarea**" kategorian deklaraturako **1.031 elementuetako hiru (% 0,3)** ditu.

Era berean, EB28ri dagokionez, Euskadik, haren biztanleriaren % 0,43 eta azaleraren % 0,07 biltzen duela, eremu geografiko horretako 28 herrialdeetan "**Munduko ondare**" deklaraturako 382 elementuen **% 0,79** ditu.

CE.14. adierazlea: Euskadiko kultura-industriek guztizko esportazioetan duten pisu erlatiboa

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa	Behatutako urtea/aldia
Euskadiko kultura-industrien esportazioen balioa / Euskadiko esportazioen guztizko balioa	%	% 0,15	2015

